

Nafarroako Esaera Zaharrak. Leitza.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Leitza.

- 720 *Aidea burun, ibilli mundun.*
Zorakerietan etxetik kanpora dabillena.
- 721 *A! Kattalintxonekoa! amalau potton!*
Ez siñestatu ori, txoroa.
- 722 *Alaba bat, alaba ona. Alaba bi, alaba onak. Alaba iru, amakin, atte lau lapurrekin.*
Alaba bat edo bi direnean, gizonak agintzen etxean; iru alabak eta amak elkar artzen dutenean, gizonak ezin burutu aiekin.
- 723 *An da emen, be(rea)la egiten du.*
Nonnai ta noiznai lanari lotzen zaio.
- 724 *Apezak meza eman zun; bere bearra bete zun.*
Mesede bat iritxi eta eskerrik erakusten ez duenaz, ongilleaz oroitzen ez denaz esana.
- 725 *Arbi errea abenduko, nor bere denborako.*
- 726 *Arri-urte, arto-urte.*
- 727 *Atzetik elduki.*
Bi aldetara artzen da esaera au: 1) norbaiti agertu zaion ajea, lendik ere bazuela; 2) norbaiti uste ez zuenen bat bere atzetik etorri zaiola.
- 728 *Atxoa, atxoa! zarra ta faltxoa!*
Ori oiuegiten diete mozorrotuei iñautetan, eta bai edanari-edo emanik bizi denari ere.
- 729 *Bide-ondoko arbola, abenduko izarra, ostatuko neskatx ederra: iruek ondatzeko arrisku bera dute.*
- 730 *Danbolin ordainduak, soñu txarra yotzen du.*
Aurretik pagatutako lanak, ondore txarrak.
- 731 *Denbora onek besteen bat ekarriko du.*
Eguraldiak bezela, gizarteko egonerak ere aldarte gogorrak eta goraberak izaten ditu.
- 732 *Diru gutxikin aberasten dena, agudo pobretzen da.*

Diru pixka bat eskuratu orduko, aberatsak bezela bizitzen asten dena, laster esku uts gelditzen.

- 733 *Den lekutik eramaten da ez den lekure.*
Jenden arteko artu-emanak nai ta naiezkoak dire.
- 734 *Eguerdin naikoa, eta gauean enpo.*
Geiegiak jendeari porrot egiñarazten.
- 735 *Elkartasuna, andrearekin bakarrik.*
Noiz ta nola den. Elkartasuna bear da beste jendekin ere, elkar laguntzeko, elkarri ongi egiteko, elkarrekin pakean bizitzeko.
- 736
- 737 *Eskea apurtsu.*
Lanera bearrean, eskera jartzen denaz, alper utsaz; olakoak apurka apurka asko biltzen.
- 738 *Esan zak norekin abillen, eta esango diat nor aizen.*
Beste izkuntzetan ere ezaguna den esaera. Nolako lagun ta adiskideak dituzun, alakoa izango zu ere.
- 739 *Etxeak ate bat, eta nagusi bat.*
Leitza-ko Txortxiko zanak semeari esana.
- 740 *Etxe uts, asarre uts.*
- 741 *Etxeko lapurrari peatzea ez da erraz.*
- 742 *Etxera etorritakoan, guardasola kanpora.*
Gauza bat ezgaraian eta ezlekuan egin edo erabili.
- 743 *Ezkontza pobrerik ez da, eriotza aberatsik ere ez.*
- 744 *Ezkontza aurrean, aldapa guzik zelai.*
Ondoreko nekeak ez ikusten.
- 745 *Danboliñek dio: "Ezkontza ona di(ag)u, ezkontza ona diu! Atzetik biboliñek: "Gero ikusiko, gero ikusiko!"*
Ezkontzaz.
- 746 *Gazta zarrari arra bezela, gizon orri gezurre dario.*
Gezurontzia esaten zaio olakoari.

- 747 *Gero da bero.*
Gorriak ikusi bearra aiz oraindik.
- 748 *Gizon ori zertan da? -Bere berean dago.*
Gaizki dagonaz galdetzean: ez atzera ta ez aurrera dago.
- 749 *Idiak min, eta gurdiak soñu.*
Ixillik egon bear lukena, oiuka ari.
- 750 *Il da gero, salda bero.*
Kristaua il ondoan apezaren billa joaten direnez esaten da ori Leitza-n. Esaera oni oartxo bat erantsi bear diot.
Gaxo edo eria azkenekotan ikusi arte apezta deitzen ez dutenak emarazteko ongi esana dago ori. Naiz alakoetan, naiz ustekabeen norbait iltzen denean, bereala apezta deitu egin bear da. Asnase gabe egoteak ez du esan nai askotan, kristau ura egiaz illik dagoela; ez da egiazko eriotza, itxurazkoa baizik.
Ustegabeko eta bat-bateko eriotza izan bada, ordu ta ordutan iraun lezake biziak, eta irauten du zenbait aldiz. Argatik apezari otsegin bear zaio elizakoak emateko: bada-ezpadako asolbizioa eta oliadura santua.
Atsaldeko iru t'erdietan il ta zerraldoan itxirik zeukatena, gaueko bederatzietan bizirik ikusia nago. Il-itxurarik gabe, kopeta oraindik bero zeukan. Elizakoak artu ta bereala il zen, itxura aldatu ta txuri txuri gelditurik.
- 751 *Ire burue goberna zan; gizonak otea ere yaen (jango) din.*
Ama gaizto batek bere alabari ezkontzekoan esana. A zer erakutsi ona!
- 752 *Yanak ondo edana, aseak zear-etzana.*
Ongi yan ondoan edan, ase ondoan etzan.
- 753 *Yaietan yai, astean ere ala nai.*
- 754 *Kattalin, Kattalin, bazoaz? beste bat etorriko da denboraz.*
- 755 *Larrabide ederra eraman zun.*
Bere biziko ibillaldia egin zuen.
- 756 *Lenago ikusten da besteren partza, bere zorrie baño.*
Nork bere burua nekez ezagutzen; besten utsak aisago ikusten.
- 757 *Lengo otsokumek bezala: oberena, gaizto asko.*
- 758 *Letraduak badaki, probatuak obeki*
. Liburuetan baño obeki ikasten bizitzean.
- 759 *Magdalen bero, gaztañen aro.*
Maria Magdalena uztaren 22'an.

- 759 *Mingañean ez du aririk.*
Itzontzia da eta gogorrak esaten dakiena.
- 760 *Mundun iru gauza galtzen dire alperrik: pobrearen arrazorea (arrazoia), mendiko egur igarra, ta eroaren indarra.*
- 761 *Nola edo ala, al dukena egin zak.*
- 762 *Obereneko alde(r)a yo ta ere.*
Norbaitek esan edo egin duenari alderdi on bat arkitu nai denean.
- 763 *Oe-azala, etxeko abea.*
Oe, oatze.
- 764 *Ogi erre-berri, etxeko kaltegarri.*
Erderaz ere: "Pan tierno, mal gobierno".
- 765 *Odolak etzaizkio galduko estutu-ta.*
Oso lasa ta nagia da.
- 766 *Ori yoatearekin nere etxean zerue sartu zen.*
Etxea nasten zuen nonbait.
- 767 *Oker edo makur, agindua egin zak.*
Eskukoak eskura bear, esanekoak esanera.
- 768 *Parra ta marra, astoakin ezkondu bearra.*
Ergelkerietan dabillanak, ezkontza txarra egin oi du.
- 769 *Pobreza, zeruko lorea: aberatsa, infernuko suatsa.*
Aldika bai, baña ez beti.
- 770 *San Klemente Papa, elurre tipi tapa.*
San Klemente azaroaren 23'an.
- 771 *San bizente otz, neguaren biotz.*
San bizente ilbeltzaren 22'an.
- 772 *Tarranta ederra dauke orrek.*
Mintzo latza izan ta oiuka itz egiten duenaz.
- 773 *Txantxarie baño geiago gelditzen ez dena da ori.*
Beti jira ta bira dabillena.
- 774 *Txurian beltza agertuko ez balitz.*
Zorra paper txurian ez balego tinta beltzez idatzia.

- 775 *Ur yoanari ez egin presik.*
Alperrikako lana, "usoak yoan ta sareak heda" bezela.
- 776 *Urre onaren bueltak bertan.*
Urre onak bezela, gizon onak nonnai arrera ona.
- 777 *Urteak, adarra luzea du.*
Neurriz ibilli gauzeekin, iraun-arazi.
- 778 *Ur-urtea, elur-urtea.*
Ur-urtea, urrak ugari diren urtea.
- 779 *Zakarditik atera, eta sasi(a)n sartu.*
Gurutze ariña utzi ta pisuagoa artu.
- 780 *Zarrari ibiltzeko ta aurrari geldi egoteko esatea, berdin berdin da.*
- 781 *Zartagie sutan? Errie pestetan.*
- 782 *Zenbat andre on, ainbeste etxe on.*
- 783 *Zuri(a)n beltza yarri ezkeroz, an gelditzen da.*
Diru-kontuak, artzekoak eta zorrak paper zurian tinta beltzez idatzi ezker...
- 784 *Mendira noanean, aizkora etxera beire (begira), ta etxerakoan mendira beire.*